

FEDERIKO KRUTWIG SAGREDO.—*Erroten Burgiko mystê-
ria* (Belatzen baratza saila). Haranburu-Editor, S. A. Do-
nostia, 1982.

Hau ere Belatzen baratzekoa dugu. Gehienbat Flande aldean kokatzen da Paristik igaro ondorean; baina, hemengo arazoetara zuzenago dator eta badirudi inoiz egilea bera dela pertsonaietariko bat. Heiko ote? Behintzat, gerraondoko literaturgintzan ari ziren batzuren urratsak eta jarrerak nabarmen ageri dira: «Heikoren lagunak, behintzat Pietek ezagutu ukhan zituenak bi euskal irazle ziren. Lehena bizkaitar bat zen, Andima Ibinagabeitiako; ta bigarrena Jon Mirandeko. Andima eta Heiko askotan saiatu ziren frantses euskaldunen pentsatzeko ta agitzeko forma hulertzen. Hunela ikhusi zuten, ezen Jon Mirandek eztabaidatu zuen klima, diasporen seme batena sela. Mirande, Lutegian sorthua zen, nahiz-eta bere gurasoak zuberotarrak zirenarren... Geroz Frantziako Ministergoan postu ttipisko bat bethetzen zuen... eta hunen araura bere bathan errotik sartu zitzaizkion inferioritate-komplexuak».

*Ortziren zaldia*k deritzaion eleberria aipatzean (*Egan*, 1984, 1-2 zenb., 133 orr.), sorgin kontuaz ari zelarik, Burgi hiria non kokatzen zen zalantzazko gertatzen zen, Ula eta Uta flamendarrak baziren ere, zeren Nafarroako Erronkari ibarrean den Burgiko sorginak ere hots handikoak izan bai ziren 1569ko auzia zela ta; baina, eleberri hontan argi ta garbi dago Beljikako Brujas hiriaz ari dela, testuz aparte, zalantzarik ez jartzeko, marrazkiak ere eskaintzen bai dizkigu 20 eta 105. orrialdeetan.

Eleberri honi ere, sail berekoeri aurkitzen dizkiogun birtute eta defekto beraiek aurkitzen dizkiogu. Euskara herrikoia goan erabili zitezken ideia horiek eta lehen urri dugun irakurlegora ere aisago iritsiko zen. Oraingo honek badu bere hiztegia; baina hori ezta aski.

Pertsonaien ariak lotzea hainako interesgarria da gaiena

bera jarraitzea ere. Hortik ikus ditzagun ehun eta larogehigarren orrialdean diona: «Heien arteko filosofiari ta politikari buruzko hizketa irauten zuten, eta hunela Otsoak jakin zuen, ezen Heiko Euskalheritik kanpora joan zen, hor Españako okkupazionearen azpian nabusi zen klima faxistak bizia iratotzen bait zuten. Hunen araura Heiko atzeherrira zerbaiten bilha joan zen bilhatzen zuen gauza zer zen argi-ta-garbi jakin ez zuenarren. Heikok ere Buddihismoarentzako interesse handi eduki ukhan zuela jakin zuen, bai eta mentu batetan van Casteekin Indualdera joaiten pentsatzu ukhan zuela».

FEDERIKO KRUTWIG SAGREDO.—*Harbelnoren amazônak* (Belatzen baratza saila). Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1982.

«Polyphônia ta Polyrhythmia» teorian mamitu nahi dituen eleberriotan badabil harat-hunatik eta oraingo huntan Flandezetako Burgin murgilduago dabilta bertako pertsonaiak. Indualdera ez ziren joan, eta Buddaseme ez ziren bihurtu. Zeren norbere buruari ere begiratzen zaio. Hara nola Gordonen ahotik irtetzen den honako esaldi hau: «Euskaldun bat da, beraz gurekin gardunekin herstuki lothuta dagoen askaziak dira, orain-arte beren hizkuntza bizirik zaindu dutenak». Eta, Elizabeth Farquharsonenk ihardespén hau: «Beraz ongi enthelegatzen dut, baldin-eta Harbelnoren proskynetzaileek gnôstikismo spermatikoaren latreian bethetzen ba dute, hauxe bait da Mendi-gurutik, mendi-hierotik dathorren zômoaz elikatzen bait liren bezala... Bai ahizpa von Falkenburg ongi ezagutu behar ditugu... beren izenean Falkenburg